



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 10a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00011. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioeko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legea. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (3.or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/ITP-00010. Interpelazioa, Gobernuak Foruzaingoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (5.or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-26/POR-00048. Galdera, Auzitegi Nagusiak 106/2023 araua dela-eta Steilas sindikatuak aurkeztutako errekurtsuari buruz emandako epaiaren aurka departamentuak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsua ezetsi ondoren Hezkuntza Departamentuak gogoan darabilen asmoari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6.or.).

—11-26/POR-00049. Galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen estalduraren arazoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (7.or.).

—11-26/POR-00050. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (7.or.).

—11-26/POR-00051. Galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritza-neurriei eta arreta soziosanitarioaren kontrolari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (8.or.).

—11-26/POR-00052. Galdera, 2025eko ekainean onetsitako irizpide berrien arabera itxaron-zerrendak atzera begira birkalkulatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9.or.).

- 11-26/POR-00053. Galdera, indarkeria instituzionalari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (9.or.).
- 11-26/POR-00054. Galdera, dermatosi nodular kutsakorren aurkako txertaketari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (10.or.).
- 11-26/POR-00055. Galdera, jakiteko ea zertan erabiliko diren eskolarik ematen ez duten erlijio-irakasleendako bideratzen diren 2,1 milioi euroak 2026-2027 ikasturtetik aitzina. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (10.or.).
- 11-26/POR-00056. Galdera, Bizi-baldintzei buruzko 2025eko inkestaren emaitzei buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (11.or.).
- 11-26/POR-00057. Galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege proiektuari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12.or.).
- 11-26/POR-00058. Galdera, oinarritzko osasun-laguntzako oinarritzko zerbitzuak baliatzeko arazoei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12.or.).
- 11-26/POR-00059. Galdera, ingurune digitalak gazteengan duen inpaktuari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Úrsula Pardo García andreak egin du (13.or.).
- 11-26/POR-00060. Galdera, San Martín Unxen El Boyeral bazkalekua sortzeko proiektuari buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (13.or.).
- 11-26/POR-00061. Galdera, AP-15eko bidesariak kentzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (14.or.).
- 11-26/POR-00062. Galdera, Nafarroako sistema soziosanitarioaren erronkei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (14.or.).
- 11-26/POR-00063. Galdera, Gazteen emantzipazioaren arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (15.or.).
- 11-26/POR-00064. Galdera, Lerínko La Gazako eremu ureztagarriari (81/2020 FDA) eta XXVI-Ega 2 sektoreari (65/2024 FDA) buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15.or.).
- 11-26/POR-00066. Galdera, Sarrigurengo 168 familiak beren etxebizitzak galtzea ekiditeko Catella Group-ekin izandako negoziazioei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (16.or.).
- 11-26/POR-00067. Galdera, babespeko adingabe baten aurkako erasoari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (16.or.).
- 11-26/POR-00068. Galdera, tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeak deklaratu ondoko lehen seihi-lekoan bildutako datuei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (17.or.).
- 11-26/POR-00069. Galdera, errenta bermatuaren erreformari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18.or.).
- 11-26/POR-00070. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (18.or.).
- 11-24/POR-00307. Galdera, Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (19.or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/ACOP-00005. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez berresten eta aldarrikatzen baitu otsailaren 11ko ospakizuna ETaren bortxaz lekualdatuak izandakoen oroimenezko egun gisa (20.or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00011. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek foru-lege proposamena aurkeztu dute. Horren bidez, indargabetzen da Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legea. Eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea aipatu foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legea**

**HITZAURREA**

Maiatzaren 17ko 15/2022 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijioiko irakasleen lanpostuei eustea bermatzen da.

Foru lege horren hitzaurrean esaten denez, legearen xedea da mugagabeak diren lanpostu batzuei eustea, kontuan hartuta litekeena dela erlijio-irakasgaiaren irakastorduak murriztea Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE) aplikatzearen ondorioz.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, erlijio-irakasleen kontratazioak lanizaera du, eta harreman “mugagabe ez-finko” baten bidez gauzatzen da; figura horren izenak berak adierazten du harremana ez dela finkoa eta, beraz, funtsean aldi baterakoa den harremana dela.

Hezkuntzaren alorrean, badaude aldi baterako izaera duten irakaskuntza-alorreko zerbitzu-ematezko beste harreman batzuk; hori horrela, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren —251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena— 88. artikulua irakasle-beharretarako kontratu administratiboaren figura bat aurreikusten du, izatez aldi baterakoa dena, berriaz ezartzen baita kontratu horiek ezin izanen dutela hurrengo ikasturtearen hasieratik harago jarraitu.

Alabaina, aldi baterako harreman mota horrentzat, araudian ez dago lanpostuari eutsiko zaiola ziurtzen duen inolako bermerik, erlijio langileentzat ezarrita dagoenaren modukorik. Hain zuzen ere, administrazio-araubideko aldi baterako kontratua duten eta beste irakasgai batzuk ematen dituzten gainerako irakasleen kasuan, orain indargabetzen den foru legearentzat oinarri den egoeraren antzekoak sortzen dira (irakastorduen murrizketa). Esate baterako, eskola-curriculumei buruzko araudiak irakasgai jakin batzuen irakastordu-murrizketa ezartzen ahal du (eta, hain zuzen ere, horixe gertatu da hainbatetan); jaiotza-tasaren beherakada orokorra egoten ahal da, eta horrek kontratazio-beharrak murriztea ekartzen ahal du; edo, besterik gabe, aldaketak gertatzen ahal dira ikasleen irakasgai-aukeraketan. Egoera horien eta beste batzuen ondorioz, gertatzen ahal da ikasturte batetik hurrengora espezialitate jakin batzuetako irakasle gutxiago behar izatea; eta, beraz, lasai asko gertatzen ahal da, eta hala gertatzen da, ikasturte batean kontratua izan duen irakasle bat ez suertatzea kontratu baten esleipendun hurrengo ikasturtean, edo haren lanaldia murriztua izatea.

Hortaz, ez dago arrazoi objektiborik irakasle-kolektibo baten eta beste baten arteko tratu desberdin horri eusteko. Ez langile-beharren murrizketak dakarren irakastordu-murrizketa, ez kontratu-figuraren izaera, ez ematen den irakasgaia bera ere, ez dira behar besteko oinarria orain indargabetzen den arauak tratu desberdin hori ezar dezan. Pentsatu behar da, gainera, langile horiek hautatzeko modua oso berezia dela, ez baita ez merezimendurik ez

gaitasunik frogatu behar izaten, eta horrek mugiezintasun-izaera kentzen diola lan-harreman horri, irakaskuntzako langile funtzionarioen kasuan ez bezala, horiek bai, egiaztatzen baitituzte merezimenduak eta gaitasunak.

Azkenik, 15/2022 Foru Legea —15/2022 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena— indargabetzeari dago-kionez, jotzen da haren eraginek ez dutela berehalakoak izan behar, eta, aldiz, 2026/2027 ikasturtearen hasierara arte atzeratu behar direla, kalterik ez egiteko jada abian den ikasturte honetako antolaketari, ez eta zuzenean ukitutako pertsonen egungo egoerari ere gutxieneko denbora-tarterik gabe.

Hori guztia gogoan, eta proposatutako helburuak lortzea errazteko, beharrezkoa da honako foru lege hau onestea.

**Artikulu bakarra.** 15/2022 Foru Legea indargabetzea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena.

Indargabetu egiten da 15/2022 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duena.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2026-2027 ikasturtetik aurrera aplikatuko da.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-26/ITP-00010. Interpelazioa, Gobernuak Foruzaingoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako interpelazioa, Gobernuak Foruzaingoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Inmaculada Jurío Macaya andrea Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari izendatu ondoren —zuzenduko duen departamentuaren politika publikoei bultzada emateko egin da izendapena—, eta Geroa Bain uste dugunez Barne Zuzendaritzaren barruan Foruzaingoaren arloko zenbait gai garrantzitsu bultzatu beharra dagoela, Gobernuak Foruzaingoaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00048. Galdera, Auzitegi Nagusiak 106/2023 araua dela-eta Steilas sindikatuak aurkeztutako errekurtsuari buruz emandako epaiaren aurka departamentuak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoa ezetsi ondoren Hezkuntza Departamentuak gogoan darabilen asmoari buruzkoa**

*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Auzitegi Nagusiak 106/2023 araua dela-eta Steilas sindikatuak aurkeztutako errekurtsuari buruz emandako epaiaren aurka departamentuak Auzitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoa ezetsi ondoren Hezkuntza Departamentuak gogoan darabilen asmoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio ahozko galdera honi erantzun diezaion.

Auzitegi Nagusiaren epai batek eskola-jardunaldia arautzen duen 106/2023 Foru Aginduaren hiru artikuluko baliogabetu zituen (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko bigarren zikloko eskola-lanaldi motak arautzen dituen Foru Agindua). Epaiak partzialki onetsi zuen Steilas sindikatuak aurkeztutako errekurtsio bat, onartuz familiei beto-boterea ematen zaiela lanaldia aldatzeko eskaeraren izapidean, eta horrek maila handiagoko arauak urratzen zituela, hala nola LOE.

Bestalde, Auzitegi Gorenak ez du onartu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka aurkeztutako errekurtsioa.

Behin jakinda Auzitegi Gorenak errekurtsioa atzera bota duela, zer egiteko asmoa du Hezkuntza Departamentuak afera horri dagokionez?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

## **11-26/POR-00049. Galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen estalduraren arazoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturreko telematikoen estalduraren arazoak Nafarroan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: zer egin da eta zer konponbide eman zaio Nafarroan genero-indarkeriaren biktimak babesteko eskumuturrekoen auziari eta zer elkarriketa izan da Berdintasun Ministerioarekin?

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **11-26/POR-00050. Galdera, despulazioari buruzko lege berrian despulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, despulazioari buruzko lege berrian despulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivite Cornado jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Despupulazio-arriskuan dauden eremuetako biztanleek nahi gabeko bakardadea pairatzen ahal dute herriak hustearen –eta hortaz, herri horietan gero eta biztanle gutxiago egotearen– ondorioz. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Departamentuak zer neurri hartuko du despupulazioari buruzko lege berrian, despupulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-26/POR-00051. Galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritzaneurriari eta arreta soziosanitarioaren kontrolari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Vida Nueva egoitzaren gaineko ikuskaritza-neurriari eta arreta soziosanitarioaren kontrolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zenbait pertsonak salatu dutenez, Vida Nueva zentroa –egoitza Ziritzan (Nafarroa) du egun– "sekta bat" da, konbertsio-terapiak egin zituen haiekin 2000. urteko lehen eta bigarren hamarkadetan. Zentroak jardunean jarraitzen du eta diru publikoa jasotzen du. 2025ean, gutxienez 105.150 euro lortu ditu Lan Ministeriotik (Europako funtsetatik), 12.000 Eraldaketa Digitalerako Ministeriotik eta 55.000 Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetatik,

ko Departamentutik, Dirulaguntza eta Laguntza Publikoen Publizitate Sistema Nazionalean jasota ageri denez.

Errehabilitazio-zentroa, baita predikatzeko darabilten eliza ere, Vida Nueva elkarte kristauren babespean dago. Beren webgunean ziurtatzen dute bertara sartzeko bideetako bat dela osasun mentaleko sistema publikotik eta Gizarte Zerbitzuetatik hara bideratu izana.

Nafarroako Osasun Departamentuak zentro horrekin itunik ez dagoela dioen arren, Osasun Mentaleko Onarpen Atalak telefonoz aitortu du pazienteak Vida Nueva-ra bideratzen dituztela. Deribazio horiek ez dira itun baten ondorio –erabiltzaileak edo haren legezko tutoreek ordaindu behar dute–, baina arduradun horrek adierazi du osasun-langile batzuek zuzenean «profil espezifikotarako» eskatzen dituzten plazak direla. Erabiltzaileak ordainduko lituzkeen plazak dira, berez itunik ez egoteagatik.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut:

Zer ikuskapen-neurri hartu da zentroan, garrantzen dituzten tratamenduek erabiltzaileen duintasunari eta eskubideei eragiten ez dietela bermatzeko, eta zer ekimen hartu du edo hartuko du Nafarroako Gobernuak salaketak egiaztatzeko eta Ziritzako Nueva Vida zentroa kautelaz ixteko edo bertan esku hartzeko neurriak hartzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-26/POR-00052. Galdera, 2025eko ekainean onetsitako irizpide berrien arabera itxaron-zerrendak atzera begira birkalkulatzeari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2025eko ekainean onetsitako irizpide berrien arabera itxaron-zerrendak atzera begira birkalkulatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zergatik ez ditu atzera begira birkalkulatu nahi itxaron-zerrenden zifrak, 2025eko ekainean onartutako irizpide berrien arabera, atzera begira aplikatu daitezkeen irizpideei dagokienez?

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-26/POR-00053. Galdera, indarkeria instituzionalari buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, indarkeria instituzionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarrean Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakari eta Berdintasuneko kontseilariak 2026ko otsailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urrian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai historikoa ezagutu genuen, zeinaren bidez Espainiako Estatuak kondenatu baitzen 45.000 €-ko kalte-ordaina ematera Iruñean, 2016aren amaiera aldean, mendekotasun kimikoren bidez bortxatutako bi biktimei.

Kondena hori irmoa da Estatuak errekurtsioa aurkezteari uko egin ondoren, eta agerian uzten du Nafarroako Polizia Nazionalaren Buruzagitza Nagusian benetako konplot bat egon dela: frogak suntsitu, sekretuak ezagutarazi eta txostenak misterio-tsuki desagertu ziren, eta barne-afaren sailaren ikerketa besterik gabe itxi zen. Biktimen abokatuak Hualde epaileari salatu zion konplota, eta hark dena artxibatu egin zuen, Pilar Larrayoz fiskalaren adostasunarekin; hori guztia da, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia ekarri duena.

Gaur egun, konplot horren zuzeneko arduradunek Polizia Nazionalaren Buruzagitza Nagusian jarduten jarraitzen dute, inpunitate osoz. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epai irmo bidez jada frogatuta dago gure erkidegoan indarkeria instituzionala gertatu zela. Nafarroako Gobernuak zer egin du edo eginen du du indarkeria horri erantzuteko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

---

## **11-26/POR-00054. Galdera, dermatosi nodular kutsakorraren aurkako txertaketari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, dermatosi nodular kutsakorraren aurkako txertaketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

2026ko otsailaren 12ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Nafarroako behi-azienda osoari dermatosi nodular kutsakorraren aurkako txertoa jartzeko asmoa al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

---

## **11-26/POR-00055. Galdera, jakiteko ea zertan erabiliko diren eskolarik ematen ez duten erlijio-irakasleendako bideratzen diren 2,1 milioi euroak 2026-2027 ikasturtetik aitzina**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zertan erabiliko diren eskolarik ematen ez duten erlijio-irakasleendako bideratzen diren 2,1 milioi euroak 2026-2027 ikasturtetik aitzina.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Alderdi Sozialista eta Contigo Zurekin talde parlamentarioek lege-proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroako Komunitateko ikastetxe publikoetan erlijio-irakasleen lanpostuei eustea bermatzen duen maitzaren 17ko 15/2022 Foru Legea indargabetzeko.

Gaur egun egiaztatuta dago ezen lanaldi osoko 43 pertsonako soberakina dagoela, haien kontratuen blindajea dela-eta. Erlijio-eskolarik ematen ez duten erlijio-irakasleei ordaintzen zaizkien ordu horiek 2,1 milioi euroko kostua dute urtean, eta diru hori beste hezkuntza-premia batzuetarako erabil liteke.

Legea onesten baldin bada, zer lehentasunetara bideratuko lituzke Hezkuntza Departamentuak 2,1 milioi euro horiek 2026/2027 ikasturtetik aurrera?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-26/POR-00056. Galdera, Bizi-baldintzei buruzko 2025eko inkestaren emaitzei buruzkoa

*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Bizi-baldintzei buruzko 2025eko inkestaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Duela gutxi argitaratu dira Bizi-baldintzei buruzko 2025eko inkestaren emaitzak.

Zure departamentuak zer balorazio egiten du inkesta horren Nafarroarako emaitzei dagokienez?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

## **11-26/POR-00057. Galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege proiektuari buruzkoa**

*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, despopulazioari aurre egiteko foru-lege proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohe-siorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz erregistratuko duzu Nafarroako Parla-mentuan despopulazioari aurre egiteko foru-lege proiektua?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

---

## **11-26/POR-00058. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzako oinarrizko zerbitzuak baliatzeko arazoei buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, oinarrizko osasun-laguntzako oinarrizko zerbitzuak baliatzeko arazoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako zenbait tokitan arazoak daude Oinarrizko Osasun Laguntzako oinarrizko zerbitzuak baliatzeko (Lekunberriko eta Larraungo pediatria-zerbitzuan egun dauden arazoak, kasu). Zure ustez, herritarrek noiz arte onartzen ahal dituzte arazo horiek?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-26/POR-00059. Galdera, ingurune digitalak gazteengan duen inpaktuari aurre egiteko neurriei buruzkoa

ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako galdera, ingurune digitalak gazteengan duen inpaktuari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Úrsula Pardo García andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ingurune digitalak gazteengan duen eraginari buruzko kezka gero eta handiagoa denez gero, neurriak hartzen ari dira Europako zenbait herrialdetan, baita Espainian ere. Sare sozialen eta plataforma digitalen erregularizazio berria errealitate bat izanen da gure herrialdean.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako neurri berriez, eta nola lan egiten du eta lan egingen du arlo horretan?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Úrsula Pardo García

## 11-26/POR-00060. Galdera, San Martin Unxen El Boyeral bazkalekua sortzeko proiektuari buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, San Martin Unxen El Boyeral bazkalekua sortzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Javier Ollo Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak otsailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugu San Martin Unxen El Boyeral bazkalekua sortzeko proiektua dagoela, herriak 2022ko udan pairatu zuen sutearen ondorioz toki-esparrutik eman nahi den erantzunari jarraikiz. Zure departamentuak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

**11-26/POR-00061. Galdera, AP-15eko bidesariak kentzeari buruzkoa***PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, AP-15eko bidesariak kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués-ek otsailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuaren eledunak AP-15 autobidea 2029tik aurrera turismoentzat doakoa izango dela adierazi ondoren, lehendakariak azaldu al dezake zer konpromiso zehatz hartzen duen Nafarroako Gobernuak errepide horretan bidesariak kentzeari dagokionez, eta zer epe eta jarduketa aurreikusten den emakida amaitu arte?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

**11-26/POR-00062. Galdera, Nafarroako sistema soziosanitarioaren erronkei buruzkoa***ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, Nafarroako sistema soziosanitarioaren erronkei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez-ek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur egun, herritarrek parte hartzeko fasean dago "Nafarroako arreta soziosanitarioaren egoeraren diagnostikoa", Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak egina.

Azken dokumentua ixteko ekarpenen faltan, zeintzuk dira Nafarroako sistema soziosanitarioak dituen erronkak?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

## **11-26/POR-00063. Galdera, Gazteen emantzipazioaren arloko politikei buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Gazteen emantzipazioaren arloko politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraindik uste al duzu gazteen emantzipazioaren arloan darabiltzazun politikak "bide onetik" doazela?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

## **11-26/POR-00064. Galdera, Leríngo La Gazako eremu ureztagarriari (81/2020 FDa) eta XXVI-Ega 2 sektoreari (65/2024 FDa) buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Leríngo La Gazako eremu ureztagarriari (81/2020 FDa) eta XXVI-Ega 2 sektoreari (65/2024 FDa) buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer egutegi zehatz du zure departamentuak Leríngo La Gazako eremu ureztagarria (81/2020 FDa) eta XXVI-Ega 2 sektorekoa (65/2024 FDa) zertzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-26/POR-00066. Galdera, Sarrigurengo 168 familiak beren etxebizitzak galtzea ekiditeko Catella Group-ekin izandako negoziazioei buruzkoa**

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Sarrigurengo 168 familiak beren etxebizitzak galtzea ekiditeko Catella Group-ekin izandako negoziazioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak otsailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan, komunikabideen bidez jakin dugu Nafarroako Gobernuak negoziazioak izaten ari dela Suediako jabe handi batekin, Catella Group-ekin, ekiditeko Sarrigurengo 168 familiak beren etxebizitzak alokairuak arriskuan jartzea, zenbait bizitegi-blokeren etxebizitza babestu izaeraren araubidea edo katalogazioa amaitu baita. Argitaratu den informazioaren arabera, tentsiopeko etxebizitzamerkatuaren zonalde deklaratzeko funtsezko elementua izanen litzateke negoziazio horietan, eta, dirudenez, akordio partzial bat edo aurrerapen handiak lortu omen dira etxebizitza horietako batzuentzat.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zertan dira Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren eta etxebizitza-jabe handi honen arteko negoziazioak, Nafarroako Gobernuak zer itxaropen darabil azken emaitzari buruz eta zer konponbide zehatz aurreikusten ditu ukitutako familien bizitegi-egonkortasuna bermatzeko?

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## **11-26/POR-00067. Galdera, babespeko adingabe baten aurkako erasoari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, babespeko adingabe baten aurkako erasoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Gaurkotasun handiko galdera, 2026ko otsailaren 12ko Osoko Bilkurarako.

Nafarroako Gobernuako lehendakaria:

Nafarroako Gobernuak erantzukizunik hartuko al du bere gain Administrazioaren babespeko adingabe baten aurkako eraso dela-eta?

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

---

**11-26/POR-00068. Galdera, tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeak deklaratu ondoko lehen seihilekoan bildutako datuei buruzkoa****DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeak deklaratu ondoko lehen seihilekoan bildutako datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak otsailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den ostegunean, Etxebizitzako, Gazteriko eta Migrazio Politiketako Departamentuak gure erkidegoko alokairu-prezioei eta etxebizitzaren alokairu-kontratuen kopuruari buruz azken 6 hilabeteotan bildutako datuak argitaratu zituen, indarrean jarri ondoren tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeak eta Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen aldaketan onartutako hainbat neurri.

Zer balorazio egiten du zure departamentuak tentsiopeko etxebizitza merkatuaren zonaldeak deklaratu ondoko lehen seihilekoan bildutako datuak direla-eta?

Iruñean, 2026ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

**11-26/POR-00069. Galdera, errenta bermatuaren erreformari buruzkoa***JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, errenta bermatuaren erreformari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak otsailaren 12ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak zehatz al dezake errenta bermatuaren zer erreforma ari den prestatzen Gobernua?

Iruñean, 2026ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

**11-26/POR-00070. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa***LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer gehiago gertatu behar da Nafarroako itxaron-zerrendarekin Osasuneko kontseilaria kargutik ken dezazun?

Iruñean, 2026ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## **11-24/POR-00307. Galdera, Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruzkoa**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

2026ko otsailaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Jasotzat ematea Eneka Maiz Ulaiar andreak Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2024ko

urriaren 8ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-26/ACOP-00005. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez berresten eta aldarrikatzen baitu otsailaren 11ko ospakizuna ETArek bortxaz lekualdatuak izandakoen oroimenezko egun gisa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

### **Lehena:**

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berresten eta aldarrikatzen du otsailaren 11ko ospakizuna, ETArek bortxaz lekualdatuak izandakoen oroimenezko egun gisa, beldurragatik, mehatxuengatik edo jazarpen terroristagatik beren lurretik alde egin behar izan zutenen aitortza gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak adierazten du gure gizartearen etorkizuna ezin dela eraiki ETak eraildako pertsonen oroimenik, aitortzarik eta duintasunik gabe, bereziki Nafarroakoak ziren edo Nafarroarekin lotutako 62 biktimena, justifikatu ezin den indarkeria baten izenean erailak izan baitziren.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak gaitzetsi egiten du ETArek indarkeria terrorista, berresten du hura guztia bidegabea eta zilegitasunik gabea izan zela eta ez zuela inoiz gertatu behar, justifikazio politiko edo ideologikorako ahalegin oro baztertzeko, eta eskatzen du hura erabili zutenek publikoki aitortzea biktimei eta gizarte osoari eragindako mina.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konpromisoa hartzen du desberdintasun ideologiko edo interpretatiboetatik harago lan egiteko, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak lortzera bideratutako politika publikoaren alde, terrorismoaren biktima guztientzat.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berariaz gaitzesten du terrorismoaren biktimen eta haien familien memoria eta duintasuna umiliatzea, desitxuratzeko, minimizatzea edo gutxiestea dakarren edozein ekintza, diskurtso edo ekimen.

6. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aitortzen du erakunde demokratikoen erantzukizuna dela terrorismoaren kontakizuna hutsaltzea edo berridaztea ez baimentzea, eta biktimekiko konpromiso etikoan, terrorismoaren anbiguotasunik gabeko gaitzespenean eta giza eskubideen defentsan oinarritutako kontakizuna sustatzea.

7. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak memoria-ekimenak bultzatu eta babesten ditu, bereziki ETArek izua ezagutu ez zuten belaunaldi gazteei zuzendutakoak, iraganaren ezagutza kritikoa sustatuz biktimen omenaldi gisa eta indarkeria errepikatzea saihesteko tresna gisa.

8. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak biktimen elkarteetan lana babesten du, haiekin lankidetzan arituz aitortza publikorako, erreparazio osorako, egitarako eta justiziarako eskubideak defendatzeko, bai eta erbesteratzearen eta nahitaezko lekualdatzearen biktimei arretoa espezifikoa emateko ere.

9. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak terrorismoaren biktimen lekukotzak eta bizipenak biltzea eta gordetzea sustatzen du, memoria demokratikoren, giza hurbiltasunaren eta gizarte-enpatiaren ariketa gisa, urteetan jasandako sufrimenduaren, isiltasunaren eta ahanzturaren aurrean.

10. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bakea eta bizikidetzaren balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzen du, indarkeria politiko mota oro deslegitimatuz, haren jatorri ideologikoa salatuz eta biktimen eskutik eraikitako memoria partekatuz, kritikoa eta kontrastatua sustatuz.

### **Bigarrena:**

Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias